

BESTE GAU BATEZ

“Iratxo”
Olerkiak, A maila

Ilunabarra heltzean,
dena bihurtzen da bare.
Sutondoaren epelean,
pertsone eta landare.

Ordua da,
irteteko garaia!

Xuxurlatu du Ilargiak
hasperen eginez,
lan egin dezagun, bada,
beste gau batez.

Iluntasuna babes,
salto eta brinkoka noa etxez etxe.
Isiltasuna hautsi gabe:
hanka-puntetan.
Korridore luzeetan barrena
dantza pauso biribilak marrazten ditut
Krik, krak, kruk
Ene! Egurra haserrarazi dut, baina
metara gerturatzen ari naiz,
beste gau batez.

Dantzaleku osoa
zeharkatu dut jada,
Kox, kox, kox!
Denak daude lo.
Maratila ferekatu dut
eta honek, esker onez,
ametsen erreinuko atea ireki dit.
Iluntasunean murgiltzean,
milaka istoriok inbaditu naute,
beste gau batez.

Zakutxotik atera ditut hautsak,
esku biez eutsi,
putz egin eta
gela osoan zehar zabaldu dira,
izar iheskorren antzean dir-dir eginez.
Pixkanaka, gela girotu egin da.
Bazen garaia,
Zeure zain geunden!
Kexatu dira jostailuak,
beste gau batez.

Gaizki portatu omen da,
gaur ere, Gartxot.
Atzo barkatu nion,
gaur, ordea, ez.
Zigorra merezi,
baina jarri nahi ez
 Horren zintzoa
 ematen du lo!
Neure lana bete beharko dut,
beste gau batez.

 Baga, biga, higa,
 ametsek egin dezatela bira!
Gartxoten goxotasuna
erabat da desagertu,
aurpegian larridura
egin zaio nagusitu.
 Laster egingo du oihu!
Ohartarazi naute jostailuek,
Joateko ordua heldu zait,
beste gau batez.

Orain badakizue,
zintzoak izan eta
neu ere hala izango naiz.
Ondo lo egin eta hurrengo
amesgaiztora arte!